

EKOLOGIAZ

Ekologia hitza, lehen zientzia gizonen soilik erabilia izatetik gu denon eguneroko hitza izatera bihurtu da.

Komunikabideen bitartez maizago entzuten ari dira ekologiarekin zerikusia duten berriak, hala nola, lantegiak ibaietara egindako isurketak direla eta sortarazitako arrain hilketa, euri azidoak gure basoetan daukan eraginaz edota ozono kaparen deuseztapenaz. Honelako albisteak arruntak dira gaurregungo egunkari guztietan.

Eta zer da edo zer esan nahi du ekologia hitzak? Hona hemen zenbait definizio, -izaki bizidunek beraien artean eta beren ingurugiroarekin dituzten harremanak aztertzen dituen zientzia- edo -ekosistemen biologia aztergai duen zientziarena, ekosistemaz, izaki bizidun multzo batek bere ingurugiroarekin batera osatutako natura zatia ulertuz-. Oraindik azken bat gehi dezakegu, -ekologia, naturaren funtzionamendua, bere osotasunean ikertu eta aztertzen duen zientzia da-, alegia.

Teknika prozesuen garapenari esker, gizonak lorkuntza eta aurrerapen ugari lortu ditu, baina gure zibilizazio industrialaren garapena naturari lepoa emanez egin zen. Gure zibilizazioko gizon goren askoren sendimendua naturaren aurkako gudarena zen eta da: natura menperatu, beraz baliatu ahal izateko.

Ikuspuntu hau, gure gizartearen aurrerapenezko sustrailetan egon dena, zenbait testutan impasse ekologiko deituriko egoera

batera eraman gaitu. Impase hau gizona naturaren atal zatiezina dela konturatzen denean sortzen da, eta ondorio honetara ez da heldu, zoritxarrez, arrazonamendu baten bitartez, baizik eta «akalean» ikasi du, bere eguneroko bizitzan, bere haragian sentitu ditucnean zibilizazioaren bigarren mailako efektuak.

Eta bigarren mailako efektuez ari garenez, aipa ditzagun haize eta uren kutsadura, basoen erauzte ekologikoa, ozono kaparen deseuztapena, «efecto invernadero» delako lurraren batz besteko Temperaturaren igokuntza efektu hori e.a., bakar batzuk aipatzeagatik.

Iraultza industrialaren garaietatik eta gaurregun arte gizonak lortutako aurrerakuntza benetan harrigarria da, eta noski, prozesu guzti honek bere eragin baikorra izan du gizonaren bizitza-kalitate eta osasunean. Gaurregun, urte gehiago eta hobeto bizi gara orohar, baina zeren truke?

Naturarik ateratzen ditugu lehen gaiak, hauek transformatu eta gure erabiletarako egokitzen ditugu, askotan Naturaren legeak eta Natura arautzen duten indarrak kontutan hartu gabe, baina gizonaren ekintza naturarengan azken urteotan inoiz baino nabarmenago somatzen ari da, eta aldaketa horren aurtean Naturak beti bezala bere legee jarraituz erantzuten du.

Bestalde, interesgarritzat jo behar da ekologi elkarteen ugaritasuna. Elkarte hauen sorketak gizartearen kezka bati erantzuten dio: gizakia konturatzen ari da bere ingurugiroaren degradazioaz, bere bizitza-espazioa gero eta hondatuago dagoela, eta egoera horri aurre egiteko jarrera ekologista hartzen du. Pentsa dezagun Greenpeace ekologi taldearen ekintzetan, hondakin erradioktiboan isurketak itsasoan galeraziz edo behintzat oztopatuz, hauek dira espektakularrenak, baina ia herri guztietan, txikienetan ere, ekologi talde edo ingurugiroaz arduratzen den elkarteren bat dago, bizitza osasuntsuago eta ingurugiroaren zaintza eta iraunaraztea aldarrikatzen duena. Eta hori oso baikorra da, talde edo elkarte hauek indar handia hartzen ari dira, politika-mailan ere, gogoan izan Alcmaniako «Verdeen» taldea.

Baina holako elkarteen barnean egon gabe ere, gizakiek beren bizitzarako baldintza hobekak eskatzen dituzte, eta garrantzikoena, eskubidetzat jotzen dute haize garbia, parke eta berdeguneak izatea, arriskurik gabe bainatzeko moduko ibai garbiak e.a. Hau dena lortzeko diru gehiago behar da, kontraesankorra badirudi ere, gizonak aurrerakuntza lortzeko Naturaren hondamenaren zordunduz egin duenez, orain hondatutakoa garbitu edo konpontzeko ere dirua behar da. Baina funtsezkoena jendearen jarrera ingurugiroarekiko da, sentzibilizazio hau Administrazioak berea egin eta beharrezko neurriak ezarri behar ditu, oraindik aurrera gauzak hobeto egiteko, iraganeko hutsak kontutan izanik. Honetaz zerbait egin da edo egiteko asmoak daude, dena den badago zertaz kezkatu.

Artikulu honen helburua, helbururik izatekotan, ingurugiroari dagokionez, erne dagoen sentzibilizazio giro horren alde egitea litzateke, denon ahaleginak beharrezkoak baitira. Gizarte mailan zenbat eta indar gehiago egin, Administrazioan oihartzun handiago izango du kezka honek.

Eta bukaera emateko, Noah Sealath, sioux buruzagiaren hitzak aukeratu ditut, 1865eko «Lurra ez da gizonarena» bere dokumendutik ateratakoak, ezin aproposagoak artikuluan zehar jarraitutako ildoaren azken ohar gisa. Honela esaten dio bere lurrak erostera doan gizon zuriari:

«Baina zuek aintzaz beterik suntsipenarantza zoazte, lur honetara ekarri zintuzten Jainkoaren indarrez goiargiturik, nork helburu bereziren bategatik Lurra eta larru gorria menperatzeko indarra eman bait zizuen. Helburu hori misteriotsua da guretzat, ez bait dugu ulertzen zergatik suntsitzen diren bufaloak, zaldi basatiak zergatik domatu, oihaneko toki izkutuak hainbeste gizonen arnasaz eta muino ugaritsuen paisaia «kable hitzunez» zergatik betetzen diren. Non dago sasitza? Suntsiturik. Non arranoa? Desagertua. Bizitza amaitu eta superbibentziari hasiera emana dugu.»

Ana Mallea Ituarte